

Paleolitoko labar-arteak askotariko funtzioak zituela baieztatu dute Euskal Herriko kobazuloetan



lkerketan aztertutako irudi-multzotako bat, Santimamiñen. ARG.: Iñaki Intxaurre Alberdi.

Euskal Herriko kobazuloetan Madeleine aldiko labar-arteak metodo konputazionalekin aztertuta, ezaugarri espazialen eta ikonografikoen arabera bereizi dituzte irudiak, eta ondorioztatu dute lau multzotan bana daitezkeela.

Irudiek zeukaten funtzioari erreparatuta, bi taldek antagonikoak diruditelako azaldu du Iñaki Intxaurre Alberdi EHUko ikertzaileak. Batzuetan, [eszenarantzera zaindu zen](#); hau da, ikusiak izateko egin ziren. Beste batzuetan, aldiz, kontrakoa bilatu zen: leku ezkutuan eta sarbide zailekoetan eginda daude.

Funtzio desberdinak zituztela iradoki dute ikertzaileek. Lehenengoenak litekeena da funtzio xamanikoa izatea. Helduek eginda daude (goialdean), eta, zurrerrenik, kontakizunekin lotuta zeuden, talde ertainak edo handiak har litzaketan espazioetan baitaude. Bigarrenengoenak badirudi beste arrazoi batzuei erantzuten dietela, hala nola igarotze-erritoei. Ohikoa da lurretik gertuago dauden eremuetan aurkitzea. Haiekin batera haurren edo nerabeen aztarnak aurkitu direnez (oin biluzien aztarnak, hatzekin egindako marren tamaina, eta abar) [litekeena da haiek izatea egileak](#).

Madeleine aldiko irudien beste talde bat [buztinean grabatutako elementuek eta egindako eskultu-](#)

[rek](#) osatzen dute. Intxaurren esanean, haitzuloetako eremu sakon eta ezkutuenetan bakarrik aurkitu ohi dira, eta pentsa bazitekeen ere agian leku irisgarrietakoak galdu egin direla, eta horregatik aurkitzen diren guztiak leku zailetan daudela, badirudi ez dela hori arrazoiak: "Izan ere, historiaurreko aldi haren ondoren, arrazoi geologikoengatik itxita geratu ziren beste kobazulo batzuetan ere (adibidez, Erberua, La Garma, Fontanet...), leku ezkutuetan bakarrik aurkitu dira. Hortaz, ematen du erabaki kultural bat izan zela".

Azkenik, zeinu abstraktuek osatzen duten taldea dago. "Horietan ez dugu ikusi kokapen berezia zutenik, ausaz agertzen dira apaindutako haitzuloaren edozein lekutan. Interpretatu izan da taldearen identitate-ikurrak zirela; orduan, berdina du sarreran edo sakonean egitea, beti izango baitute esanahi bera"; azaldu du Intxaurrek.

Aztertutako irudi guztiak (500 inguru) Euskal Herriko kobazuloetakoak dira, eta, azterketa egitean, irudi berriak ere aurkitu dituzte, adibidez, Santimamiñen eta Ekainen. ●